# BESTELAKO XEDAPENAK

## HERRIZAINGO SAILA

## 5092

*EBAZPENA, 2011ko irailaren 23koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (266/2011-D prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.*

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (266/2011-D prozedura laburtua) aurkeztu da, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2011ko ekainaren 17ko Ebazpenaren kontra aurkeztu ere; ebazpen honen bitartez, Tiro polizialeko instruktoreen prestakuntza-aldirako eta trebakuntza-aldirako onartutako izangaien zerrenda onesten da. Eta, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkaute, 2011ko irailaren 23a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.